

SEGUNDA PARTE.

Iruchuloko
 gaztelupeko,
 Josemaritar zar eta gazte,
 Josemari emiakin nazte,
 kalerik kale,
 tanborrajuaz,
 umore ona banatzen
 or dijuaz.

TERCERA PARTE.

Gaurtandik gerora
 penak sokora.
 ¡Festara!
 ¡Dantzara!
 Donostiarrai oju
 egitera gatoz
 ¡Ñaute-
 riak datoz!

AL INOLVIDABLE MAESTRO

D. JOSÉ JUAN SANTESTEBAN.

— — — — —
¡ILL DA MAISUBA!
 — — — — —

Donostitik gu gana, isillik, erikoi,
 Ay triste bat da jašten:
 Misteriozko oju orren arrazoi
 Ñork ez daki ematen.

Eliz gañeko eskillak, aldiz, dolorez
 Ematen du golpea,
 Aizea bera dator penen podorez
 Malko triste z betea!

Eriozko otsa da toñu tristan
 Eta negargarrian....

Zer gertatzen da bada itsas aldean,
 Donostiyako errian?

Galdezazute, mendi, zelai, basoan,
 Layak utsi ta ondoren,
 Langilleak kontentu echerakoan,
 Zer kantatutzen duen.

Zer kant, soñu pozgarri ¡ay! datorkiyon
 Urrun bizi danari;
 Zerekin loarrarasi egiten diyon
 Amak umechoari.

Arrantzaleak itsas falsoan ariñ,
 Ekaitzak daramala,
 Nolatan aztutzen dan kanta batekiñ
 Illtzera dijoala.

Juntatzen diranean eliz santuan
 Aideak eta arrotzak,
 Nork alchatzen dituen kantu gozuan
 Jaunagana biyotzak.

Galdezazu urrutiko erri Oyetan,
 Iberiya zar ura
 Nola pizten dijoan bere kantetan
 Berriotik mundura.

Azkenez... Agertzazu, zuk, Donostiya,
 Zure gaurko lutuba...
 Ez, ez, itz batek diyo. ¡Ah! bai, guziya.
 Ill da, ill da Maisuba!

Pamplona 14 de Enero de 1884.—S. B. Z.



ON JOSÉ JUAN SANTESTEBAN JAUNA-RI

¡Maisua!... Defuntuentzat izkribatu zenuen musika kupidakorrek Jaunaren justizia samurturik, ustedet anima asko sartuko zirala Zeruan; eta gaur, Zeruak, eman zizun doaiña berriz Zeruraturik, iduritzenzait entzuten detala anima aekin guztiakin moldatu dezun koru choragarri bat, eskertasunez beterik, Jaunaren miserikordiak eternidade guztian kantatzeko.

ANTONIO ARZÁC.

1884-ko Illbeltzaren 14-ean.